

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Proiektu honek funtsezko bazkide desberdinak behar ditu funtzionamendu egokia izateko eta Erasmus ikasleei benetako irtenbide bat eskaintzeko:

Unibertsitateak eta goi-mailako hezkuntza zentroak

Oso garrantzitsuak dira, batez ere Erasmus bulegoak eta ikasleentzako zerbitzuak, aplikazioa Erasmus ikasleei iristen lagunduko dutelako eta helmugako hirietan etxebizitza aukerak gomendatuko dituztelako. Haien laguntzari esker, ikasleek informazio fidagarria jasotzen dute hasieratik.

Etxebizitzak jabeak

Proiektuaren oinarria dira, haiek baitira alokairurako edo trukerako etxeak eskaintzen dituztenak. Haiei esker, ikasleek ostatu bat aurkitzeko aukera izango dute modu erraz eta azkar batean, bitartekaririk gabe. Inmobiliariak eta ostatu-enpresek ere lagunduko digute, etxebizitza gehiago eskainiz eta plataformari fidagarritasun handiagoa emanez, aukera gehiago izatea ahalbidetuz.

Erasmus eta nazioarteko ikasleen elkarrekin

ESN bezalakoek, aplikazioa ezagutzera emango dute eta ikasleen artean konfiantza sortuko dute, beste ikasleen esperientzietan oinarrituta. Horrek komunitate aktibo bat sortzen lagunduko digu, non ikasleek elkarri lagundu ahal dioten.

Ordainketa-plataformak

Ordainketak modu seguru eta errazean egitea ahalbidetzen dute, erabiltzaileek lasaitasun handiagoz jardun dezaten. Aseguru-enpresek berriz, alokairuak babesten dituzte eta arazoan aurrean segurtasuna eskaintzen dute.

Tokiko administrazioak eta erakunde publikoak

Proiektua babesten dute, gazteen mugikortasuna eta etxebizitza eskuragarria sustuz. Haien laguntzak proiektuari balio soziala ematen dio, hiri inklusiboagoak eta Erasmus ikasleentzat errazagoak bihurtuz.

Finantza erakundeak

Proiektuaren finantzaketa hasierako fasean lortzen da, beharrezko dirua martxan jartzeko eta operazioak bermatzeko. Bankuek kredituak, inbertsioak eta laguntzak eskaintzen dituzte, eta Erasmus edo unibertsitateentzako programetako diru-laguntzak (adibidez Erasmus+ proiektuak) ere erabil daitezke. Horrela, hasierako gastuak estali eta plataforma azkar abiaraztea posible da.

APLIKAZIOARENTZAT OSAGARRIAK DIREN EKINTZAK

Aplikazioak erabiltzaileei zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkie euren esperientzia errazteko eta seguruagoa egiteko:

- **Aseguruak:** alokairuak babesten dituzte, eta arazo bat gertatuz gero ikasleak seguru egon daitezten.
- **Etxebizitza jabeak:** alokairuak eta etxebizitza-trukeak eskaintzen dituzte, bitartekaririk gabe edo profesionalen laguntzarekin, aukera gehiago eskainiz eta fidagarritasuna handituz.
- **Osasun zerbitzuak:** ikasleei informazioa eskaintzen die osasun-zerbitzuei, medikuei edo orientazio zerbitzuei buruz, Erasmus bizitza errazagoa eta seguruagoa izan dadin.
- **Telefonia konpainiak**

Horrela, plataforma ez da soilik etxebizitza bilatze tresna bat, baizik eta ikasleentzako tresna integrala bihurtzen da, euren eguneroko bizitza errazteko eta seguruago egiteko.